*UB : il faut garder en tête ces différences de dotation et les prendre en compte. Si on veut arriver à avoir un taux de service d'une commune de 8000 habitants, il faut avoir des recettes. Un classement paru récemment sur Sud-Ouest faisait apparaitre les frais de fonctionnement de chaque commune, Nous*

*hori, zuzenbideari jarraiki. Ezin dugu zerga gehiago ezarri. Oroitarazten dut, bestalde, % 60ko gainzerga ezartzen zaiela. Legeak onartzen digun zerga gorenean gara.*

*Ensemble pour Ustaritz: Eraikina duten lur-funtsetan % 29.20ra pasatzen gara, eta begiratu dugu Ipar Euskal Herriko beste herrietan zer egiten den. 158 herrietan 137.ak gara. Hendaia baino gorago gara. Garestiagoa da Uztaritzen bizitzea, Hendaian edo Biarritzen baino. Biarritz gure maila berean zen, eta zergak ez ditu emendatu. Ez zaigu normala iduri Uztaritzeko lur-funtsen gaineko zerga bi hiri horietakoa baino goragoa izatea, adibidez. Errekor tristea dugu.*

*UB: Ez da errekorra. Aise azaltzen da. Aitzinkontu denboran urte guziz azaltzen ditugun osagai batzuk badira, herriaren egiturazko irabaziei buruzkoak. Apalak dira, gure zerga tasen parekoak dituzten beste herri batzuenak baino aise apalagoak. Biarritz aipatu duzu, eta alokairuaren balioa kontuan hartu behar da, horrek tokiko zerga emendatzen baitu.*

*Ensemble pour Ustaritz: Ez gara ados. 2014tik zarete agintean, eta ez dugu sekula hainbesteko emendatzerik ikusi.*

*UB: Oroitarazten dizut herriek 3 egiturazko irabazi dituztela: Frantziako estatuak ematen digun funtzionamendu orokorrerako dotazioa, hiriguneak ematen duen finantza konpentsazioaren esleipena. Dotazio hori lehengo zerga profesionalaren eta fiskalitatearen ondorengoa da, oro har. Geruza bereko herriekin konparatzen badugu, ezberdintasunak izigarriak dira. Adibidez, Bidartek 490 000 €-ko funtzionamendurako dotazioa du, eta 2 milioi euroko konpentsazioa. Beraz, funtzionamendu-aurrekontuan guk baino milioi bat euro baino gehiago dute. Noski, haien tasa apalagoa da, baina alokairu balioari ere so egin behar zaio. Irabazi gehiago dituzte.*

*Ensemble pour Ustaritz: Urte guziz erraten dugun bezala, denboran egiten ditugun inbertsio okerren ondorioak pairatzen ditugu. Ez zarete zuek horren erantzule, hori badakigu. Ez dago ofiziale edo merkataritza eremurik.*

*UB: Dotazio ezberdintasun horiek gogoan atxiki eta kontuan hartu behar dira. 8 000 biztanleko hiri baten zerbitzu tasa lortu nahi bada, irabaziak behar dira. Sud-Ouest egunkariak berriki argitaratu sailkapen batean, herri guzien funtzionamendu gastuak agertzen dira, eta zerrendan bigarren gara. Biztanleko gastu gutien duten herrietako bat gara.*
*Irabazi apal horiek direla eta, herriak arras guti xahutu behar du, eta zentzu horretan segitzen dugu. Orain, fiskalitateari dagokionez gaineko multzoetan*

*figurions à la seconde place. Nous faisons partie des communes les moins dépensières par habitant.*

*Ce manque de ressources oblige la commune à être très chiche sur ses dépenses et on continue dans ce sens-là. On se situe désormais dans les tranches hautes en matière de fiscalité, c'est un fait mais nous sommes tenus d'assumer tous les services. C'est le levier qui avait été préconisé par la cour des comptes lors de l'audit de 2017.*

*Ensemble pour Ustaritz : Nous savons très bien que chaque année, nous obtenons moins de dotations.*
*UB : Alors que faut-il faire ? Il faut baisser la fiscalité et réduire nos services. Nous sommes obligés de trouver des équilibres différents, de trouver des recettes ailleurs et d'économiser.*

*Ensemble pour Ustaritz : Il faut trouver des recettes supplémentaires. La principale recette dont nous disposons est l'impôt, nous n'avons que ça.*

*UB : C'est le seul levier que les communes ont.*

*Ensemble pour Ustaritz : non*

*UB : Vous allez nous reparler du camping et je vous redirai que pour qu'un équipement comme celui-là soit rentable dans 10 ou 15 ans, il faut emprunter et s'endetter encore plus.*

*Ensemble pour Ustaritz : Nous avons tout de même emprunter pour la Médiathèque et la mairie ?*

*UB : je n'ai pas dit que nous ne pouvions pas emprunter. Je dis juste que si on veut investir sur une opération immobilière qui rapporte après épurement de la dette, c'est des millions qu'il faut emprunter tout de suite.*

*Ensemble pour Ustaritz : Aujourd'hui, vos priorités résident dans la nouvelle mairie ou la Médiathèque mais avons-nous vraiment les moyens de ces investissements ? Ce ne sont pas nos choix.*

*UB : les meilleures recettes sont les économies et la nouvelle mairie va en générer, économies d'énergie, de main d'œuvre sans parler du confort pour les agents communaux et le meilleur accueil des uztariztar. Je vous rappelle les autres investissements prévus au budget de cette année, le rond-point de Super U, les travaux rue Hiribéhère, Leihorrondo, le réaménagement du cœur d'Arrauntz. Nous défendons une vraie logique de revitalisation des cœurs de quartier, du bourg en favorisant les liaisons douces. Je ne peux pas laisser dire que nous basons tout sur la médiathèque.*

*gara, hala da, baina zerbitzu guzien bermatzera behartuak gara. Kontuen auzitegiak palanka horren baliatzea gomendatu zuen 2017ko kontu-ikuskatzean.*

*Ensemble pour Ustaritz: Arras ongi dakigu urte guziz dotazio gutiago ematen digutela.*

*UB: Beraz, zer egin behar da? Fiskalitatea apaldu behar da, eta zerbitzuak murriztu. Oreka ezberdinak atzematera, irabaziak beste nonbait atzematera eta aurreztera behartuak gara.*

*Ensemble pour Ustaritz: Irabazi gehigarriak atzeman behar dira. Eskura dugun irabazi nagusia zerga da, ez dugu besterik.*

*UB: Herriek duten palanka bakarra da.*

*Ensemble pour Ustaritz: Ez.*

*UB: Kanpalekua aipatuko duzu berriz, eta berriz ihardetsiko dizut hemendik 10 edo 15 urtera emankorra izan dadin, horrelako ekipamendu baten egiteko mailegua egin behar dela, eta beraz, are gehiago zorpetu.*

*Ensemble pour Ustaritz: Mediatekarako eta herriko etxerako mailegua egin dugu, ezta?*

*UB: Ez dut erran mailegurik ezin dela egin. Erraten dudana da zorra kitatu ondoren dirua ekartzen duen higiezin eragiketa batean inbertitu nahi badugu, milioiak mailegatu behar direla, segidan.*

*Ensemble pour Ustaritz: Egun, zuen lehentasuna herriko etxe berria eta Mediateka dira, baina inbertsio horien egiteko ahalak ba ote ditugu? Horiek ez dira gure hautuak.*

*UB: Irabazi onenak aurrezkiak dira, eta herriko etxe berriak horiek eraginen ditu: ekonomia eta lanesku aurrezkiak. Eta, gainera, herriko langileak baldintza hobeetan arituko dira lanean, eta uztariztarrei harrera hobea eginen zaie. Aurtengo aurrekontuan pentsatuak diren beste inbertsioak oroitarazten dizkizut: Super U-ko biribilgunea, Hiribehere karrikako obrak, Leihorrondo, Arruntzako herriaren berrantolatzea. Auzo muinen, herri barneen biziberritze logika defenditzen dugu, lotura berdeen alde eginez. Ezin zaitut utzi dena mediatekan oinarritzen dugula erraten.*

*Ensemble pour Ustaritz: Eraikin hori herriko etxe berri bilakatzeko zaharberritzeak eragin aurrezkiak aipatu nahi genituzke berriz. Erraten ahal diguzu zenbatekoak izanen diren jario aurrezkiak, errealista izanez, eta zenbat jende ibiliko den bertan? Zenbaki zehatzik ukaten ahal dugu?*

*Ensemble pour Ustaritz : nous souhaiterions revenir sur les économies faites par la réhabilitation de ce bâtiment en nouvelle mairie. Pourriez-vous nous dire les économies réalises en termes de flux, mesurer la fréquentation. Peut-on avoir des chiffres concrets ?*

*UB : Nous pourrons faire une projection fidèle après une année de fonctionnement. Nous ne manquerons pas de vous faire passer ces éléments.*

*Ensemble pour Ustaritz : Vu que Landagoien n'est pas resté un jour vide, nous supposons que la médiathèque actuelle ne restera pas un jour vide ?*
*UB : On y travaille*

*Ensemble pour Ustaritz : ça fait plusieurs fois que nous interrogeons sur le sort de ce local et nous n'obtenons pas de réponse.*

*UB : la nouvelle médiathèque sera livrée courant 2026 et nous travaillons sur le devenir de ce local, sur le futur de Mailiarena. On y travaille.*

*Ensemble pour Ustaritz : Pouvez-vous nous confirmer que les 70% de financement de la médiathèque soient bien acquis ?*

*UB : on y travaille et bous préférons rester prudents en partant sur un taux de financement à 70%. Une subvention de 369 000€ a été votée par le Conseil département. Nous attendons d'ici à la fin du mois, un retour de la DSIL. Le Conseil régional l'a inscrit dans son projet de développement territorial avec un fléchage à 600 000€ et nous attendons un retour de la DRAC qui nous accompagne sur le projet.*

*UB: Urte batez ibili ondotik egiten ahalko ditugu aurreikuspen fidagarriak. Osagai horiek helaraziko dizkizuegu, segur.*

*Ensemble pour Ustaritz: Ikusiz Landagoien ez dela egun batez hutsik egon, pentsu dugu egungo mediateka ez dela egun batez hutsik egonen?*

*UB: Horretarako ari gara lanean.*

*Ensemble pour Ustaritz: Ez da lehen aldia lokal hori zer bilakatuko den galdegiten dugula, eta ez dugu erantzunik.*

*UB: Mediateka berria 2026. urtean bururatuko da, eta egungo lokalaren geroaz gogoetatzen ari gara, Mailiarenaren geroaz. Lanean ari gara.*

*Ensemble pour Ustaritz: Baieztatzen ahal diguzu mediatekaren finantzamenduaren % 70 eskuratuak direla?*

*UB: Horretarako ere lanean ari gara, eta nahiago dugu oraino zuhur mintzatu, finantzamendu tasa % 70ekoa izanen dela erranez. Departamendu Kontseiluak 369 000 €-ko dirulaguntza bozkatu du. Hilabete bukaera itxoiten dugu, DSILaren erantzuna ukateko. Eskualdeko Kontseiluak lurralde garapenerako proiektuan sartu du, 600 000 €-ko zenbatekoarekin, eta DRACaren erantzunaren beha gara, proiektuan laguntzen baikaitu.*

13- BUDGET ANNEXE 2024 - DOMAINE FUNERAIRE

Madame Semerena – Olaizola présente le rapport suivant,

Le budget-annexe Domaine funéraire 2024 est voté par chapitre en exploitation et en Investissement.

Il s'équilibre comme suit :

* **Exploitation** :

Dépenses : 166 374 €
Recettes : 166 374 €

* **Investissement** :

Dépenses : 110 907 €
Recettes : 110 907 €

Dont un déficit d'investissement reporté de 50 944.97 € (001)

13- 2024 URTEKO AITZINKONTU-GEHIGARRIA – EHORZKETA SAILA.

Semerena-Olaizola andereak ondoko txostena aurkezten du,

2023ko Ehorzketa saileko aitzinkontu-gehigarria kapituluka bozkatua da ibilmoldean eta inbestizamenduan.

Honela orekatzen da:

* **baliatzea**:
Xahutzeak 166 374 €
Sartzeak 166 374 €

* **Inbestizamendua**:
Xahutzeak 110 907 €
Sartzeak 110 907 €

Honen artean erakarritako inbestizamendu defizit bat: 50 944.97 € (001).

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **ADOPTE** le budget-annexe Domaine funéraire 2024.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- **ONARTZEN DU** 2024ko ehorzketa saileko aitzinkontu-gehigarria.

## 14- FIXATION DES TAUX DES IMPOTS LOCAUX

Monsieur le Maire présente l'état 1259 comportant les bases prévisionnelles, les produits prévisionnels de référence, les allocations compensatrices et mécanismes d'équilibre des réformes fiscales.

Le taux de la taxe d'habitation, figé de 2020 à 2022, est de nouveau voté à compter de 2023. Cette taxe ne concerne plus que les résidences secondaires, les locaux meublés non affectés à l'habitation principale et, sur délibération, les logements vacants depuis plus de deux ans.

L'article 151 de la loi de finances pour 2024 assouplit les règles pour le vote du taux de la THRS, sur le modèle des majorations applicables à la CFE. Ainsi, pour les communes dont le taux de THRS est inférieur à 75 % de la moyenne constatée pour cette taxe l'année précédente dans l'ensemble des communes du département, l'assemblée délibérante peut augmenter le taux de la THRS dans la limite de 5% de cette moyenne soit un taux plafonné à 12.59% pour la Commune d'UZTARITZE.

En conséquence, Monsieur le Maire propose de fixer les taux comme suit :

Vu les articles 1636 B *sexies* à 1636 B *undecies* et 1639 A du code général des impôts,

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à la majorité :

- **DÉCIDE** de fixer les taux communaux pour l'année 2024 comme suit :

- taxe d'habitation (résidences secondaires) : 12.59 %
- taxe foncière sur les propriétés bâties : 29.20 %
- taxe foncière sur les propriétés non bâties : 41.32 %

- **CHARGE** Monsieur le Maire

- de notifier cette décision aux services préfectoraux
- de transmettre l'état 1259 complété à la direction départementale des finances publiques, accompagné d'une copie de la présente décision.

## 14- TOKIKO ZERGEN TASEN FINKATZEA

Auzapez jaunak 1259 agiria aurkeztu du. Bertan, oinarri aurreikusiak, erreferentziazko produktu aurreikusiak eta erreforma fiskalen orekatze mekanismoak eta ordainsari gisako laguntzak zehaztuak dira.

Bizitegi zergaren tasa 2020tik 2022ra izoztu zen; 2023tik goiti, berriz bozkatu behar da. Orain, zerga hori bigarren bizitegiei, bizitegi nagusia ez izateko lokal mublatuei eta, hala deliberatuz gero, bi urte baino gehiago hutsik daramaten bizitegiei baizik ez dagokie.

2024ko finantza legearen 151. artikuluak bigarren bizitegien zergaren tasaren bozkatzeko arauak malgutu ditu, enpresen lur kotizazioari ezartzen zaizkion emendatzeen ereduari jarraiki. Hala, herri batean bigarren bizitegien gaineko zergaren tasa aitzineko urteko departamenduko herri guzien bataz bestekoa baino %75 baino apalagoa baldin bada, biltzar erabakitzaileak bigarren bizitegien gaineko zergaren tasa emenda dezake, bataz bestekoaren %5eraino. Beraz, UZTARITZEN, gehieneko tasa %12.59koa da.

Ondorioz, Auzapez jaunak tasen honela finkatzea proposatu du:
Zergen kode orokorraren 1636 B *sexies*-etik 1636 B *undecies*-erako artikuluak eta 1639 A artikulua kontuan izanik,

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, gehiengoak :

- 2024. urterako, herriko tasen honela finkatzearen **ERABAKITZEN DU:**

- bizitegi zerga (bigarren egoitzentzat): % 12.59
eraikinen gaineko lur zerga: % 29.20
eraiki gabeko lekuen gaineko lur zerga: % 41.32

- Auzapez jaunari eginkizun hauen **EMATEN DU:**

- prefektura zerbitzuei erabaki horren berri ematea
- 1259 txosten osatua finantza publikoen departamenduko zuzendaritzari helaraztea, erabaki honen kopia batekin batean.

POUR / ALDE : 22
CONTRE / KONTRA : 7 (MM. CENDRES, DARQUY, DESGROLARD, MME DO COITO-SABIO, MME. BONTAN, MM. RUYS, LASTIRI)
ABSTENTIONS / ABSTENZIOAK : 0

15- LUTTE CONTRE LE FRELON ASIATIQUE – PARTICIPATION FINANCIERE DE LA COMMUNE AUX FRAIS LIES A LA DESTRUCTION DES NIDS DE FRELONS ASIATIQUES IDENTIFIES CHEZ LES PARTICULIERS DE LA COMMUNE

Monsieur le Maire présente le rapport suivant :

Il informe le Conseil Municipal de la présence constante de nids de frelons asiatiques sur le territoire de la commune d'Uztaritze.

Parmi l'ensemble des moyens de lutte contre cette espèce invasive, la destruction des nids semble être une solution pertinente et un mode d'action à encourager.

Le Maire propose au Conseil Municipal d'étudier la possibilité d'accorder une aide financière, à hauteur de 50% aux particuliers pour la destruction des nids de frelons asiatiques implantés sur le territoire de la Commune dans la limite du montant de la facture et des crédits inscrits au budget. Par ailleurs, le Maire ajoute qu'il serait pertinent de ne retenir que les destructions effectuées par des professionnels agrées par convention avec la mairie.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à la majorité :

- DECIDE d'accorder aux particuliers une aide financière à hauteur de 50% du montant de la facture par nid de frelons asiatiques à détruire

- PRECISE que seules seront prises en compte les destructions de nids de frelons asiatiques effectuées par des professionnels agrées par convention avec la mairie.
- AJOUTE que le versement de cette aide sera conditionné à la déclaration obligatoire en Mairie de l'existence du nid de frelons asiatiques.

*Ustaritz avec bon sens : Sait-on combien de nids de frelons ont été détruits et combien cela représente sur le budget 2023. La destruction représente 150€ ou 200€, je pense que ce montant peut freiner à certaines destructions.*

*UB : nous ne sommes pas capables de donner des chiffres exacts. La police municipale, en charge du dossier pourra fournir les données.*

*Ensemble pour Ustaritz : Si je ne me trompe pas, jusqu'à présent, c'est la commune qui prenait l'intégralité de la charge et aujourd'hui on demande à la population de prendre 50%. On augmente les impôts et on réduit la charge.*

15- LIZTOR ASIARRAREN KONTRAKO BORROKA – HERRIKO PARTIKULARREN ETXEETAN ATZEMAN LIZTOR ASIAR HABIEN SUNTSITZEKO GASTUETAN HERRIAK DIRUZ PARTE HARTZEA

Auzapez jaunak txostena aurkeztu du:

Herriko kontseiluari jakinarazi dio Uztaritzeko herriaren eremuan liztor asiar habiak etengabe badirela.

Espezie inbaditzaile horri kontra egiteko bideen artean, badirudi habien suntsitzea aterabide egokia dela, eta beraz, sustatu behar dela.

Auzapezak herriko kontseiluari proposatu dio dirulaguntza proposamen honen aztertzea: partikularrei herrian dauden liztor asiar habien suntsitzeko gastuen %50eko dirulaguntzaren ematea, fakturaren zenbatekoaren arabera eta aurrekontuan horretarako pentsatu kredituen mugan. Bestalde, auzapezak gehitu du profesionalek egin suntsiketak baizik ez onartzea komeni litzatekeela.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, gehiengoak :

- Suntsitu behar den liztor asiar habia bakoitz, partikularrei suntsiketaren fakturaren %50eko dirulaguntzaren ematearen ERABAKITZEN DU

- Profesionalek egin liztor asiar habia suntsiketak baizik onartuko ez direla ZEHAZTEN DU.

- Laguntza horren eskuratzeko, partikularrek liztor asiar habia dutela herriko etxeari aitzinetik eta nahitaez adierazi beharko diotela GEHITZEN DU.

*Ustaritz avec bon sens: Ba ote dakigu zenbat liztor habia suntsitu diren eta zenbateko aurrekontua behar izan den 2023an? Habia baten suntsitzea 150 € edo 200 € gosta da; nik uste, batzuek zenbateko horrengatik gibelera egin dezakete.*

*UB: Ezin dugu zenbaki zehatzik eman. Udaltzaingoak ematen ahalko ditu datu horiek, hark baitu gai horren ardura.*

*Ensemble pour Ustaritz: Ez banago oker, orain arte, herriak zuen osoki bere gain hartzen suntsitzea, eta orain, biztanleei % 50 beren gain hartzea galdegiten zaie. Zergak emendatzen dira, eta kargak apaltzen.*

*UB : le nombre de nids augmente de façon exponentielle. C'est un fait. Je rappelle qu'il y a des communes qui ne prennent rien en charge*

*UB: Habia kopurua izigarri emendatzen ari da. Hori hala da. Herri batzuek ez dute batere beren gain hartzen*

| |
|---|
| POUR / ALDE : 25<br>CONTRE / KONTRA : 4 (MM. CENDRES, DARQUY, DESGROLARD, MME DO COITO-SABIO)<br>ABSTENTIONS / ABSTENZIOAK : 0 |

16- PRIME EXCEPTIONNELLE DE POUVOIR D'ACHAT

Madame Semerena-Olaizola présente le rapport suivant :

Afin de soutenir le pouvoir d'achat des agents publics, une prime exceptionnelle forfaitaire de pouvoir d'achat peut être versée, avant le 30 juin 2024, aux fonctionnaires territoriaux ainsi qu'aux agents contractuels de droit public de la commune qui remplissent les conditions cumulatives d'éligibilité suivantes :

- Avoir été nommés ou recrutés par une collectivité territoriale, un établissement public administratif ou un groupement d'intérêt public à une date d'effet antérieure au 1er janvier 2023 ;
- Être employés et rémunérés par la Commune d'Uztaritze à la date du 30 juin 2023 ;
- Avoir perçu une rémunération brute inférieure ou égale à 39 000 euros au titre de la période de référence courant du 1er juillet 2022 au 30 juin 2023.

**VU** le Code général de la fonction publique et notamment ses articles L.4, L.712-13 et L.713-2 ;

**VU** le décret n°2023-1006 du 31 octobre 2023 portant création d'une prime de pouvoir d'achat exceptionnelle pour certains agents publics de la fonction publique territoriale,

**VU** l'avis du comité social territorial en date du 26 mars 2024,

**CONSIDERANT** la volonté des élus de la collectivité d'instituer la prime de pouvoir d'achat exceptionnelle forfaitaire afin d'améliorer le pouvoir d'achat des agents publics ayant perçu une rémunération annuelle brute inférieure ou égale à 39 000 € sur la période du 1er juillet 2022 au 30 juin 2023 ;

**CONSIDERANT** les plafonds de rémunération brute pour l'éligibilité du dispositif ainsi que les montants maxima de la prime fixés par la règlementation ;

16- EROSAHALMENAREN LAGUNTZEKO EZOHIKO SARIA

Semerena-Olaizola andereak txostena aurkeztu du:

Langile publikoen erosahalmenaren laguntzeko, lurralde-funtzionarioei eta herriko kontratupeko zuzenbide publikoko langileei erosahalmenerako ezohiko sari finko bat ordain dakieke, 2024ko ekainaren 30a aitzin, baldin eta baldintza hauek guziak betetzen badituzte:

- Lurralde elkargo batek, administrazio erakunde publiko batek edo interes publikoko elkargo batek 2023ko urtarrilaren 1.a aitzin izendatua edo enplegatua izatea;
- 2023ko ekainaren 30ean Uztaritzeko hiriak enplegatua eta ordaindua izatea;
- 2022ko uztailaren 1.etik 2023ko ekainaren 30erako garairako, 39 000 euro gordineko soldata edo apalagoa eskuratua izatea.

Funtzio Publikoaren kode orokorra eta, bereziki, haren L.4, L.712-13 eta L.713-2 artikuluak **KONTUAN IZANIK**;

Lurralde funtzio publikoko langile batzuentzat erosahalmenaren laguntzeko sari baten sortzeari buruzko 2023ko urriaren 31ko 2023-1006 dekretua **KONTUAN IZANIK**,

2024ko martxoaren 26ko lurralde batzorde sozialaren aldeko iritzia **KONTUAN IZANIK,**

Elkargoko hautetsiek, 2022ko uztailaren 1.etik 2023ko ekainaren 30erako garairako, 39 000 euro gordineko soldata edo apalagoa eskuratu duten langileen erosahalmenaren hobetzeko, erosahalmenerako ezohiko sari finko baten ezartzeko xedea dutela **KONTUAN HARTURIK**;

Dispositiboaren plantan emateko gehieneko soldata gordinak eta araudiak finkatu sariaren gehieneko zenbatekoak **KONTUAN HARTURIK**;

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- DECIDE d'instituer la prime de pouvoir d'achat exceptionnelle forfaitaire en faveur de tous les agents fonctionnaires titulaires et stagiaires et contractuels de droit public remplissant les conditions d'éligibilité fixées par le décret n°2023-1006 du 31 octobre 2023 susvisé ;

- DECIDE de fixer le montant de la prime de pouvoir d'achat exceptionnelle forfaitaire par strate de rémunération perçue par les agents pour la période du 1er juillet 2022 au 30 juin 2023 selon les modalités suivantes :

- Goian aipatu 2023ko urriaren 31ko 2023-1006 dekretuan finkatu baldintzak betetzen dituzten funtzionario titular, funtzionariogai eta zuzenbide publikoko kontratupeko langileendako, erosahalmenaren laguntzeko ezohiko sari finkoaren ezartzearen ERABAKITZEN DU;

- Erosahalmenaren laguntzeko ezohiko sari finkoa langileek 2022ko uztailaren 1.etik 2023ko ekainaren 30erako epean eskuratu soldata mailen arabera eta molde hauen arabera finkatzearen ERABAKITZEN DU:

| Rémunération brute perçue au titre de la période courant du 1er juillet 2022 au 30 juin 2023 | Montant de la prime du pouvoir d'achat |
|---|---|
| Inférieure ou égale à 23 700 € | 400 € |
| Supérieure à 23 700 € et inférieure ou égale à 27 300 € | 350 € |
| Supérieure à 27 300 € et inférieure ou égale à 29 160 € | 300 € |
| Supérieure à 29 160 € et inférieure ou égale à 30 840 € | 250 € |
| Supérieure à 30 840 € et inférieure ou égale à 32 280 € | 200 € |
| Supérieure à 32 280 € et inférieure ou égale à 33 600 € | 175 € |
| Supérieure à 33 600 € et inférieure ou égale à 39 000 € | 150 € |

- Le montant de la prime de pouvoir d'achat est réduit à proportion de la quotité de travail (temps non complet et temps partiel) et de la durée d'emploi sur la période courant du 1er juillet 2022 au 30 juin 2023.

- Elle sera versée en une seule fois : avril 2024

- L'autorité territoriale est chargée de fixer, par arrêté, le montant individuel attribué à chaque agent.

- Les crédits suffisants sont prévus au budget de l'exercice.

- La présente délibération prend effet à compter du 11 avril 2024.

- Erosahalmenaren laguntzeko sariaren zenbatekoa lan kuotaren arabera (denbora osokoak ez diren lanak eta zati denborazko lanak) eta 2022ko uztailaren 1.etik 2023ko ekainaren 30erako epeko enplegatze iraupenaren arabera murriztuko da.

- Aldi bakarrean ordainduko da: 2024ko apirilean

- Lurralde aginteak du langile bakoitzari dagokion sariaren zenbatekoa finkatuko, eta horretarako erabakia hartuko du.

- Behar diren kredituak ekitaldiko aurrekontuan pentsatuak dira.

- Deliberamendu hau 2024ko apirilaren 11tik goiti indarrean izanen da.

*<u>Ustaritz avec bon sens</u> : Cette prime nous donne raison et nous la trouvons injuste. Elle nous donne raison car ça fait longtemps que nous disons que le personnel communal est sous-payé. L'augmentation*

*<u>Ustaritz avec bon sens:</u> Prima horrek arrazoi ematen digu, eta zuzena atzematen dugu. Arrazoi ematen digu, aspalditik erraten baitugu herriko langileak ez direla aski pagatuak. Biziaren kostua % 5 edo 6*

du coût de la vie est de 5 à 6%. On se retrouve avec une augmentation du point d'indice de 1.5% ce qui représente 25€ brut. C'est un grain de sable. Et la cette fameuse prime vient compenser cette perte. On peut aller jusqu'à 800€, vous avez choisi d'en payer que la moitié. La barrière d'ajustement de votre présentation du budget aujourd'hui est la charge du personnel. Il y a deux ans, c'était la guerre en Ukraine, l'année dernière, c'était l'énergie et cette année, c'est la baisse des dotations de l'état et que rognons-nous ; le salaire du personnel. C'est inadmissible. Nous allons nous retrouver en manque de personnel car les salaires sont trop bas en comparaison avec le privé.

*UB* : nous sommes d'accord sur la nécessaire revalorisation des salaires dans le public mais les grilles indiciaires sont fixées par l'état et non les communes. Nous avons ici l'occasion de donner une prime, nous trouvons que c'est une bonne chose.

*Ensemble pour Ustaritz* : cette prime est une bonne chose à condition de la donner à 100%. Pourquoi choisissez-vous de n'en donner que la moitié ? ce n'est pas logique. Les salaires sont plus que bas dans la fonction publique territoriale et on n'est pas capable de verser la totalité de cette prime.

*UB* : la grille d'imposition est fixée par l'état ; Il est laissé le choix aux communes de verser ou pas cette prime en totalité ou pas. Compte-tenu de nos contraintes, nous avons retenu le versement de 50% du montant de la prime. Nous sommes bien conscients du faible niveau de revenus, nous essayons donc de trouver d'autres facteurs d'attractivité avec notamment le passage aux 4.5 jours, la participation à la mutuelle, le CNAS… Nous avons des services qui fonctionnent bien et je les en remercie. Le CST a voté en faveur de cette prime et les représentants en étaient satisfaits, je le précise.

*Ensemble pour Ustaritz* : un budget, c'est des choix politiques et aujourd'hui, le choix que vous faites est de donner la moitié d'une prime. C'est votre choix, c'est tout.

*UB* : Pouvez-vous aller au bout de ton raisonnement et nous dire quel service vous amputez de 25 000€ ?

*Ensemble pour Ustaritz* : Nous, nous n'aurions pas investi autant dans la mairie ou la médiathèque. Nous n'aurions pas fait de choix politique au détriment des salaires des agents. On reconnait tous que le personnel territorial est mal payé. On ne fait pas autant que l'on devrait faire. C'est tout.

*UB* : on ne peut pas te laisser dire ça. Je te rappelle que sur le budget 2024, une augmentation des rémunérations du personnel de 7% est inscrite,

emendatzen da. Indize puntua, aldiz, % 1.5 emendatzen da; hots, 25 € gordin. Ogi papur bat da. Prima horrek galera hori orekatzen du. 800 €-rainokoa izan daiteke, eta erdia baizik ez ordaintzea erabaki duzue. Zuen egungo aurrekontu aurkezpenean, doikuntza aldagaia langileen kostua da. Duela bi urte, Ukrainako gerla zen arazoa; iaz, energia; eta aurten, Frantziako estatuaren dotazioen apaltzea. Eta zer murrizten duzue? Langileen soldatak. Onartezina da. Langile eskasean gertatuko gara, soldata horiek apalegiak baitira pribatuarekin konparatuz.

*UB*: Ados gara publikoan soldatak emendatu behar direla, baina indize taulak Frantziako estatuak ditu finkatzen, ez herriek. Prima bat emateko parada dugu, eta ontsa iduritzen zaigu.

*Ensemble pour Ustaritz*: Prima hori ontsa da, % 100 emanez gero. Zergatik ematen duzue erdia bakarrik? Ez du logikarik. Lurralde funtzio publikoan, soldatak apalak baino apalagoak dira, eta ez gara prima osoki emateko gai ere.

*UB*: Inposizio taula Frantziako estatuak finkatu du. Herrien esku da prima hori osoki eman ala ez erabakitzea. Gure hertsapenak kontuan izanki, primaren % 50 ordaintzea erabaki dugu. Badakigu soldatak apalak direla, beraz saiatzen gara beste erakargarritasun faktore batzuen atzematen: 4.5 egunera iragatea, mutualitatean parte hartzea, CNAS… Gure zerbitzuak ontsa martxan dira, eta eskertzen ditut. Lurraldeko gizarte batzordeak (CST) prima horren alde bozkatu du eta ordezkariak kontent ziren, hori zehaztu nahi dut.

*Ensemble pour Ustaritz:* Aurrekontuak hautu politikoen adierazle dira, eta egun, egiten duzuen hautua prima baten erdia ematea da. Zuen hautua da, besterik gabe.

*UB:* Zure gogoeta bururaino eraman dezakezu, otoi, eta erran zein zerbitzutik kenduko zenukeen 25 000 €?

*Ensemble pour Ustaritz:* Guk ez genukeen hainbeste inbertituko herriko etxean edo mediatekan. Ez genuen hautu politikorik eginen langileen soldaten kaltetan. Denak ados gara errateko lurraldeko langileak gaizki ordainduak direla. Ez dugu behar genukeen guzia egiten. Besterik ez.

*UB*: Ezin zaitut hori erraten utzi. Oroitarazten dizut, 2024ko aurrekontuan, langileen soldatak % 7 emendatzea pentsatua dela, eta emendatze horren diruztatzeko fiskalitatea baliatuko dugula.

*augmentation que nous finançons par une augmentation de la fiscalité.*

17- BILTZAR DES COMMUNES DU PAYS BASQUE

Monsieur le Maire présente le rapport suivant :

Il informe le Conseil Municipal que le Biltzar des Communes du Pays Basque a renouvelé son bureau pour assurer la continuité du Biltzar.

Aussi, il est demandé à chaque commune de régler la cotisation d'adhésion annuelle qui s'élève à 0.05€/habitant.e.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- AUTORISE Monsieur Le Maire à régler la cotisation annuelle qui s'élève à 0.05€/ habitant.e, à savoir un montant de 373.80€.
- PRECISE que les crédits nécessaires seront prévus sur le budget 2024.

17- IPAR EUSKAL HERRIKO HERRIEN BILTZARRA

Auzapez jaunak ondoko txostena aurkezten du :

Auzapez jaunak herriko kontseiluari jakinarazi dio Ipar Euskal Herriko herrien Biltzarrak bulegoa berritu duela, Biltzarrak aitzina segitu ahal izan dezan.

Hala, herri bakoitzari galdegin diote urteko kotizazioaren ordaintzea; hots, biztanleka 0.05€.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- Auzapez jaunari urteko kotizazioaren ordaintzeko BAIMENA EMATEN DU; hots, biztanleka 0.05€
- Behar diren kredituak 2024ko aurrekontuan pentsatuak direla ZEHAZTEN DU.

18- SERVICE RESSOURCES – CREATION D'EMPLOI ASSISTANT RH

Madame Semerena-Olaizola présente le rapport suivant,

Un emploi permanent d'assistant ressources humaines à temps complet étant vacant pour cause de mutation, un appel à candidature a été ouvert afin d'assurer le remplacement de l'agent.
Il est proposé d'ouvrir ce poste sur les grades suivants : adjoint administratif, adjoint administratif principal 1ère et 2ème classe, rédacteur et rédacteur principale 2ème classe.

Après avis du comité technique,

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- DECIDE de créer un emploi permanent d'assistant ressources humaines sur les grades précités au sein du service ressources humaines à temps complet à pourvoir le 2 avril 2024 ;
- PRECISE que les crédits nécessaires seront prévus sur le budget 2024.

18- BALIABIDEEN ZERBITZUA – GB LAGUNTZAILE POSTU BATEN SORTZEA

Semerena-Olaizola andereak txostena aurkeztu du:

Langile baten leku aldaketaren ondorioz denbora osoko giza baliabideetako laguntzaile lanpostu iraunkor bat libre denez, hautagaitza deialdi bat zabaldu da eskas den langilearen ordezkatzeko.

Lanpostu hori maila hauetarako zabaltzea proposatzen dizuegu: administrazio laguntzaile, 1. mailako eta 2. mailako administrazio laguntzaile nagusi, erredaktore eta 2. mailako erredaktore nagusi.

Batzorde teknikoaren iritzia ukan ondoan,

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- 2024ko apirilaren 2tik goiti denbora osoko giza baliabideetako laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzearen ERABAKITZEN DU, goian aipatu mailen arabera;
- Behar diren kredituak 2024ko aurrekontuan pentsatuak direla ZEHAZTEN DU.

19- SERVICE TECHNIQUE : CREATION D'UN POSTE DE MECANICIEN

19- ZERBITZU TEKNIKOA: MEKANIKARI LANPOSTU BATEN SORTZEA

Madame Semerena-Olaizola présente le rapport suivant,

Afin de prendre en compte les besoins de personnel, Il est nécessaire de créer un poste de mécanicien à temps complet au sein du service technique sur les grades d'adjoint technique, adjoint technique principal 1er et 2è classe, agent de maîtrise et agent de maîtrise principal.

Après avis du comité technique,

Il est proposé au Conseil Municipal, la création de ce poste à compter du 11 avril 2024.

Le Conseil Municipal, Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- DECIDE de créer un emploi permanent de mécanicien sur les grades précités au sein du service technique ;
- PRECISE que les crédits nécessaires seront prévus sur le budget 2024.

Semerena-Olaizola andereak txostena aurkeztu du:

Langile beharren kontuan hartzeko, zerbitzu teknikoan denbora osoko mekanikari lanpostu bat sortu behar da, maila hauetan: teknika laguntzaile, 1. mailako eta 2. mailako teknika laguntzaile nagusi, arduradun eta arduradun nagusi.

Batzorde teknikoaren iritzia ukan ondoan,

Herriko kontseiluari 2024ko apirialren 11tik goiti lanpostu horren sortzea proposatu zaio.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- Zerbitzu teknikoaren baitan goian aipatu mailetako mekanikari lanpostu iraunkor baten sortzea ERABAKITZEN DU;
-
- Behar diren kredituak 2024ko aurrekontuan pentsatuak direla ZEHAZTEN DU.

## * TRANSITION ECOLOGIQUE ET ENERGETIQUE

### 20- MODIFICATION DU REGLEMENT D'INTERVENTION POUR L'AIDE A L'ACQUISITION DE VELOS A ASSISTANCE ELECTRIQUE

Madame Marty-Chaléon présente le rapport suivant :

La commune d'Uztaritze souhaite œuvrer concrètement pour des mobilités durables sur son territoire et en particulier pour la promotion des modes doux alternatifs à la voiture. Le 27 octobre 2020, le Conseil Municipal d'Uztaritze a approuvé à l'unanimité la proposition d'un dispositif d'aide à l'acquisition de VAE dans le cadre du Plan Vélo Communal. Après une première année d'expérimentation, le règlement d'intervention a été modifié le 30 septembre 2021, afin d'intégrer des conditions de ressources maximales pour les bénéficiaires, conditions qui ont été révisées le 29 mars 2022 pour fixer le quotient familial à un plafond de 1800€.

Une enveloppe annuelle de 4.000€ est destinée à financer ce dispositif. Mais depuis sa mise en place, le nombre d'aides attribuées diminue : 33 aides en 2021, 20 en 2022 et 14 en 2023.

Afin d'encourager un plus grand nombre d'Uztariztar à changer leurs pratiques et à privilégier le vélo pour leurs déplacements du quotidien, tout en conservant

## * TRANSIZIO EKOLOGIKOA ETA ENERGETIKOA

### 20- BIZIKLETA ELEKTRIKOEN EROSTEKO LAGUNTZARI BURUZKO ARAUDIAREN ALDATZEA

Marty-Chaléon andereak txostena aurkeztu du:

Uztaritzeko hiriak bere lurraldeko mugikortasun iraunkorraren alde konkretuki lan egin nahi du, eta, bereziki, autoaren ordez garraiobide berdeagoak sustatu. Herriko etxeak, 2020ko urriaren 27ko deliberamenduz, bizikleta elektrikoen erosteko laguntza dispositibo proposamena aho batez onartu zuen, herriko Bizikleta Planaren baitan. Lehen urte batez esperimentatu ondoan, 2021eko irailaren 30ean esku hartze araudia aldatu zen, onuradunei gehieneko irabazi baldintzen ezartzeko. Baldintza horiek 2022ko martxoaren 29an berrikusi ziren, eta familia-kozientearen gehieneko muga 1800€tan finkatu.

Dispositibo horren diruztatzeko, urtero 4.000€ko zenbatekoa pentsatua da. Baina, plantan eman denez geroztik, laguntza kopurua apaldu da: 33 laguntza 2021ean, 2022an 20, eta 2023an 14.

Uztariztar gehiago beren usaien aldatzera eta eguneroko mugimenduetan bizikletaren baliatzera bultzatzeko, eta, aldi berean, laguntza horren izaera

le caractère social de l'aide, il apparait nécessaire de faire évoluer le règlement d'intervention. Il est proposé d'instaurer une nouvelle tranche de bénéficiaires ayant un quotient famial supérieur à 1800€, avec deux montants d'aides différents, tout en maintenant la majoration en faveur des subventions versées en eusko.

